



SUKALDERAINO SARTU



PABLO S. QUIZA

■ Igartubeiti baserria (Gipuzkoako Ezkio-Itsason) XVI. mendeko dolare baserria da, gotiko estilokoa.

XVI. mendean baserriak ez zituzten bizitzeko soilik egiten. Egia esan, lan premiatarako gehiago zeuden prestatuta. Batzuek sagardoa egiteko egitura osoa zuten, eta barru haietan, gero, baserritarrak bizitzeko antolatzen ziren. Horietako bat zen Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria. Urtero dolarea abian jartzen zenean, baserria bera dantzan hasten omen zen. Orain, museo bihurtu dute etxea; sagardoa egiten ez zaio ahaztu ordea Igartubeitiri.

Testuak: Nerea Pikabea

Dolarea eta egitura, etxea eta tresna. Dena bat da Igartubeiti baserrian. Beranduxeago egin dako eranskin batzuk baditu ere, XVI. mendeko baserria da, gotiko estilokoa. Garai hartakoa da dolarea ere. Bere egituren oinarrituta, bere indarrez egiten da sagardoa. Dolare sistema hau geure begiz, oso-osorik ikus dezakegun bakarra da Euskal Herrian. Garai hartako baserrietako dolareak suak erre zituelako edota denborarekin baserriaren barneko espazioa eraldatu egin zutelako desagertu egin dira. Gipuzkoako Ezkio-Itsaso herrian dago Igartubeiti, Ormaiztegi eta Zumarraga arteko errepide nagusitik Ezkiora bidean, kilometro batera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi zuen 1993an. Geroztik, zahar-berritze lanak egiten aritu dira Alberto Santana historialari deustuarra buru dela. Iazko azaroan baserriko ateak ireki zituzten lau haizetara, dagoeneko museo bihurtuta. K6 Kultur Gestiorako Enpresak kudeatzen du baserria. Ordubete hutsez bada ere, bertara hurbiltzen denak euskaldu-

non arbasoen bizimodua arnastu, usaindu dezake.

Baserria piezaz pieza askatu, egurra garbitu, tratatu eta berriro eraiki dute baserria. Askatu zutenean, indusketak egin zituzten lurrian eta Erdi Aroko etxola baten aztarnak aurkitu zituzten. Bizilekuak mila urte baino gehiago izan ditzakeenaren ustea dago, beraz.

Alberto Santana historialaria eta UNEDeko irakaslea da. Lan ugari egin du Euskal Herriko baserrien arkitektura eta dolareak aztertzen. Honi lotutako argitalpen ugari ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik Bertan bildumaren barruan "Baserria" izeneko tomoa argitaratu eman zuen 1993an. Bere azken lana "Euskal Herriko Baserriaren Arkitektura" izenburupean argia ikusi duen hiru tomoko liburu sorta da. Beste hiru lagunekin batera idatzi ditu liburukiak: Donostiako Arkitektura Fakultateko Juan Angel Larrañaga, Alberto Loinaz eta Alberto Zulueta irakasleekin. Berak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Sailak eta mendez mende bertatik pasa diren

ZITZAIGUN DOLAREA

bizilagunek egindako ahaleginari esker, gaur zutik eta sendo ikus dezakegu Igartubeiti.

DEN DENA EGURREZKOA.

1530ean eraiki zuten baserria. Egitura osoa egurrezkoa da, haritzezkoa hain zuzen, XVI. mendean halaxe egiten baitziren baserriak Euskal Herrian. 250 haritz handi behar izan zituzten baserria jasotzeko. Honekin batera egin zuten sagardoa estutzeko tresna ere. Garai hartan, dozenatik gora kidez osatutako familiak logela bakarrean elkarrekin lo egiten zuen. Logela hau ikuiluaren ondoan zegoen eta bertako ganaduak botatzen zuen hats beroarekin egiten zioten aurre neguko gau hotz krudelari.

XVII. mendean beste zati batzuk erantsi zizkieten. Ordurarte baserri asko suak erre zituen, egurrez egindakoak zirelako. Arrazoi honexegatik harria erabiliko zuten geroago. Eraiki zutenetik ehun urte pasa ziren etxean lehenengo eraldaketak egin zituzten arte. 1630ean

baserria handitu egin zuten lau aldeetatik, bere jatorrizko egitura errespetatuz. Garai hartakoa da zurezko aurrealdea ere. Artoa lehortzen uzteko erabiltzen zuten. XVII. mendean harria erabili zuten lehenengo aldiz hormak egiteko, eta bide batez, hiru logela ere egin zituzten.

Ezagutzen diren lehenengo bizilagunak Pedro de Igartua eta Pedro Iñiguez de Igartua dira, Urretxu herria sortu zutenak. Denbora luzea egin zuten Igartuatarrek bertan. 1630ean, bertako azken oinordekoa, Katalina de Igartua auzoko mutil batekin ezkondu zen, Domingo Arregirekin, alegia. Honek ekarritako diruarekin egin zituzten etxea zabaltzeko lanak.

Bi mende osoz egon ziren Arregitarak baserrian, azken oinordeko gisa berriro emakume bat geratu zen arte. 1920an Frantziska Arregik Juan Ignacio Mendiguren ekarri zuen auzotik etxera. Hauek izan dira baserrian gure garaieraino bizi izan direnak. 1944an Frantziska Bereziartu eta Jose Mendiguren

ezkondu ziren eta bertan jaio ziren euskal literaturgintzan eta itzulpengintzan hain ezagunak diren Iñaki eta Xabier Mendiguren Bereziartu. Euren haurtzaroko oroitzapenek, bihurrikieriek barne, Igartubeitin dute bere sustraia.

BASERRIAREN DEFINIZIOA.

XV. mendearen bukaeran koka dezakegu baserriaren sorrera. Erdi Aroan bizilekutzat zituzten etxola haien ordezkoko gisa arkitektura eredu moderno bat gailendu zen, baserria, alegia. Garai hartako baldintza sozial, ekonomiko eta teknologiko berrien erantzun gisa sortu ziren. Euskal Herriko baserriak zaharrenak bostehun urte baino ez ditu, beraz.

Baserriaren berezitasunak arakatzen hasiz gero, ia denek izen propioa dutela ohartuko gara. Gehienetan topografiaren, landarediaren eta geologiaren inguruko alderdiak adierazi ohi ditu izenak.

GIPUZKOAR ERAKO BASERRIA. "Euskal baserriaren arkitektura"



PABLO S. QUIZA

■ Joan den urteko azaroaren 30ean baserria berri zenetik, bigarren aldiz egin dute sagardoa.